

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

1787

IRAGARKIA, 2022ko martxoaren 30ekoa, Industria Administrazioaren Arabako lurralde-ordezkararena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita linea hau: 13,2 kV-ko zirkuitu sinpleko aireko linearen eroalearen berritzeko proiektua, «Urkabustaiz-Izarra Cto1», 170013700 zenbakiko «Larrazcueta» transformazio-zentro berrirako deribazioetan, Arabako Urkabustaizko udal-mugartean.

Jendaurrean jartzen da jarduketa hau eta, harekin batera, eskatzaileak nahitaez desjabetu beharrekotzat jotzen dituen ondasun eta eskubideen zerrenda banakatu eta zehatza, martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuaren 10. artikuluan (2020ko apirilaren 24ko EHAA) eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren 144. artikuluan (2000ko abenduaren 27ko BOE) aurreikusitako ondorioetarako, testu beraren azken xedapenetako lehenengoan ezarritakoarekin lotuta, eta 1957ko apirilaren 26ko Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Erregelamenduaren 17. artikuluan eta abenduaren 26ko 24/2013 Lege Elektrikoaren 55. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

- Eskatzailea: I-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAU (egoitza: Urarte kalea 2, Vitoria-Gasteiz).
- Eskatutakoa: aurretiko eta eraikitzeke administrazio-baimena, eta onura publikoaren deklarazioa.
- Helburua: zonaldean energia elektrikoaren horniketaren kalitatea hobetzea.
- Erreferentzia: 01ATY 202200016.
- «Urkabustaiz-Izarra Cto1» 13,2 kV-ko zirkuitu sinpleko aireko linearen eroalearen berritzea, 170013700 zenbakiko «Larrazcueta» transformazio-zentro berrirako deribazioetan.
- Linearen ibilbidea: Urkabustaizko udalerrria (Araba).
- Proiektu honen eraginpeko ondasun eta eskubideak: iragarki honen eranskinean jasotakoak.
- Aurrekontua: 16.251,20 euro.

Eta guztiek jakin dezaten ematen da argitara hau, eta, batez ere, proiektuak eraginpean hartzen dituen lurren jabeak eta gainerako titularrak jakitun egon daitezzen (jabe eta titular horien zerrenda iragarki honen amaieran dago jasota), hain justu ere proiektua aztertzeko aukera izan dezaten Industria Administrazioaren Arabako Lurralde Ordezkaritzan (Gasteizko Samaniego kaleko 2an), dagokion udalean edo www.euskadi.eus web-orrian (Energia eta Meategiak/Energia ataleko Proiektuei buruzko Informazioari buruzko apartatua: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurklaritza/energia-meategiak/hasiera/>), eta aipatutako tokietan egokitzen jotzen diren alegazioen bina ale aurkezteko, hoguei eguneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 30a.

Industria Administrazioaren Arabako lurralde-ordezkarria,
JESÚS PASCUAL LORENTE.

2022ko apirilaren 26a, asteartea

ERANSKINA

ERAGINPEKO ONDASUNEN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA

«URKABUSTAIZ-IZARRA CTO1» 13,2 KV-KO ZIRKUITU SINPLEKO AIREKO LINEAREN EROALEAREN BERRITZEA, 170013700 ZENBAKIKO «LARRAZCUETA» TRANSFORMAZIO-ZENTRO BERRIRAKO DERIBAZIOETAN

URKABUSTAIZKO UDALERRIA (ARABA)

Finka, proiektuaren arabera	Katastroko datuak			Titularra		Eraginak				Oharrak
	Udalerria	Polig.	Lurzatia	Jabea	Euskarriaren zenbakia (*)	Euskarriaren azalea (m ²)	Sarbidetarako		Aldi baterako okupazioa (m ²)	
							Sarbide berria (m ²)	Egokitzeko sarbidea (m ²)		
1	Urkabustaiz	3	308	Juliana Urtaran Pinedo	1090N zk.	12,11	-	-	28	1090 zenbakiko euskarria, lehendik eraikita
2	Urkabustaiz	3	748	Francisco Urtaran Ochoa de Erive	1091N zk.	11,63	-	-	36	Larrazcueta TZ 1090 zenbakiko euskarria, lehendik eraikita

(*) Oharra: behar izanez gero, perimetroan espaloia hartzen du.